

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Santio Garmendia Garmendia

*Abaltzisketa,
Gipuzkoa
(1914-2010)*

Aurkibidea



Biografia



Abaltzisketako Ipintza Barrena baserrian jaioa. Ama jaiotetxe berekoa zuen, eta aita, berriz, Abaltzisketako Zalbide baserrikoa. Zazpi senidetan zaharrena zen Santio. Hogeita bi urte zituen 1936an, eta soldadu joateko beldurrez erreketek sartu ziren herriko lau lagun. Ondoren, ordea, han boluntario gisa egotea egoki iruditu ez, eta soldadu eraman zitzaizuten eskatu zuten. Hala ibili ziren hiru urtez: Gasteiz hartu, eta Andaluzia aldera eraman zituzten. Han zeudela bukatu zen gerra. Berriz Abaltzisketara itzuli, lanean segi, eta ezkondu egin zen.

Zintak

ABL-006

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2010-05-06
- **Iraupena:** 133 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Jaioberriak bataiatu

- **Erref:** ABL-006/005
- **Iraupena:** 0:05:22. **Hasi:** 00:06:56. **Bukatu:** 00:12:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak

Laburpena:

<p>Bederatzi senide jaioak ziren familian. Elkarrizketa garaian, bi gelditzen ziren, hizlaria eta arreba moja bat. Anaia bat erditze garaian hil zen eta bestea, berriz, pneumoniaz. Bataiatuta zegoen, jaio eta berehala aitak bataiatzen zituen-eta. Ondoren berriro Elizan bataiatzen zituzten. Bataioetara gazte jendea parrandara joaten zen. Eliza ondoren etxean ospatzen zuten, ama pontekoak gonbidatuta. Jan, edan eta batzuetan dantza ere egiten omen zuten.</p>

2. Bataioen ospakizunak

- **Erref:** ABL-006/006
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:12:18. **Bukatu:** 00:15:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Soinu-jotzaile zaharrak izaten ziren festetan. Beste batzuek akordeoia edo danborra jotzen zuten. Bataiora arropa berriekin joaten ziren. Bataiatu behar zuten umea manta handi batekin eramaten zuten. Ama oraindik ohean zela umeak bataiatzen zituzten.</p>

3. Etxean egindako mondejuak

- **Erref:** ABL-006/010
- **Iraupena:** 0:03:14. **Hasi:** 00:26:11. **Bukatu:** 00:29:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Ardi zaharra jaten zuten eta mondejuak egiten zituzten. Orain fabriketan egiten dituztela esaten du; bere garaian, berriz, etxean, naturalak. Harrapazka jaten zituztela gogoratzen du. Bera txikia zenean, janari printzipalak taloa eta potajea (babarrunak) zirela dio. Amonak egiten zituen taloak. Mutil koskorrek etxe atarian jaten zituzten.</p>

4. Txerria hiltzeko modua

- **Erref:** ABL-006/012
- **Iraupena:** 0:10:37. **Hasi:** 00:32:10. **Bukatu:** 00:42:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserría » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Etxean sei behi zituzten. Txerriak ere bazituzten eta artoarekin edo larreetan ibilita gizontzen zituztela dio. Elurretan ere ibiltzen ziren txerriak etxearen kanpoaldean. San Martinetan, txerria hiltzen zuten egunean, amonak pattarra edaten zuela gogoratzen du. Txerria nola hiltzen zuten poliki azaltzen du. Isuritako odola baldean sartu eta gatzarekin gordetzen zuten odolkiak egiteko. Ondoren txerriaren zatiak banatu eta ilea erretzen zioten. Aldamenekoek festa egiten zuten horrelakoetan, baina beraien etxean ez. Txerriaren zati batzuk familiakoei banatzen zizkieten, txanpon batzuen truke umeak bidaliz. Odolki hoberenak apaizarentzat izaten omen ziren.</p>

5. Abarkak egiteko prozesua

- **Erref:** ABL-006/014
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:45:22. **Bukatu:** 00:49:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Artisauak
- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

<p>Aitak egindako abarkekin ibiltzen ziren. Abarkak egiteko Tolosako zezenketetan hildako animalien larrua erabiltzen zuten. Bueltan guztian soka sartu eta berotu ondoren larrua gogortzen zuten. Soka dendetan erosten zuten. Askotan irristatu egiten omen ziren abarkekin.</p>

6. Mantarrak galtzerdien ordez

- **Erref:** ABL-006/015
- **Iraupena:** 0:06:35. **Hasi:** 00:49:35. **Bukatu:** 00:56:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu

Laburpena:

Galtzerdien ordez mantarrak erabiltzen zituztela kontatzen du. Beroak zirela dio. Eguerdian mantarrei buelta ematen zieten berriro bero ibiltzeko. Galtzerdiak etxean egiten zituzten, etxeko hariarekin. Familiako batzuk Tolosan zapata-denda zutela esaten du.

7. Gerra hasiera

- **Erref:** ABL-006/019
- **Iraupena:** 0:05:09. **Hasi:** 01:03:08. **Bukatu:** 01:08:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Nafarrak, falangea eta erreketek aipatzen ditu. Gerra hasi zen egunean, lagun batekin basoan zebilen harria ateratzen, eta kanoi baten tiroaren soinua entzun zuten. Gaintzatik Abaltzisketara bota zuten kanoikadak Amezketan egin zuen eztanda. Kanoiaren bigarren tiroak soroan zuloa egin zuen; eta, hura entzundakoan, behiak bildu eta etxera bueltatu ziren. Soldaduak Larraitzen egon ziren egun batzuetan, eta gero etxeetara joan ziren mutilen bila. Soldaduak pertsona garbiak zirela uste du.

8. Gerra garaian Tolosan

- **Erref:** ABL-006/021
- **Iraupena:** 0:05:46. **Hasi:** 01:11:55. **Bukatu:** 01:17:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra hasieran, Abaltzisketan bertan geratu zen eta abuztuan, Ama Birjinaren egunean, Tolosara joan zen. Tolosan, ardoa, neska gazteak eta festan bezala ibili zirela dio. Izaskun mendian abioiak tirokatzen saiatzen ziren, Tolosako aitona zahar batek fusila nola erabiltzen zen erakutsi ondoren. Errekete egon zen azarora arte. Orduan soldadu izateko instrukzioa egin zuen Lizarran. Gauean, batak besteari galdetzen zioten etxekoen egoeraz jakiteko. Bere ustez, tartean zeuden nagusiak ziren dena dominatzen zutenak.

9. Alde egin ala ez?

- **Erref:** ABL-006/022
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 01:17:41. **Bukatu:** 01:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Askok Frantziara egin zuten ihes, lagunak tirokatzen zituztela ikusi ondoren. Desagertuta zegoela jakiten bazuten, etxean nahigabe handia hartuko zutela pentsatu zuen eta, horregatik, alde ez egitea erabaki zuen. Lemoako lagun batek ihes egiteko aukera eskaini zion, lan egiten zuen fabrikako nagusien laguntzaz. Ezetz esan zion. Ondo erabaki zuela pentsatzen du, bizirik atera zelako. Ihes egin nahiko balu, nondik nora joan, lagunak erakutsi zion.

10. Gerrako batailak

- **Erref:** ABL-006/024
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 01:26:25. **Bukatu:** 01:30:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Lizarran, soldadu garaian, ardoa egiteko sasoian, kuartelean erdi mozkortuta zeudela, Inuzente egunean, denak altzarazi zituztela kontatzen du, kontrakoek Gasteiz hartu behar zutelako. Gasteiztik gertu, Legution ("Billerle"), zalditeriako kuartelean, moroekin eta nazionalistekin tiroketa izan zen. Bere aldekoak moroekin komunikatuta zeudela dio.

11. Gerrako basakeriak I

- **Erref:** ABL-006/025
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 01:30:44. **Bukatu:** 01:35:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian Arabako Legution tiroketaren erdian egon ziren. Batzuk lapurretan ibiltzen zirela dio, Legutioko biltegietan. Mairuek euskaldun bati hanka moztu ziotela kontatzen du. Legution kanoia hiri erdian tiroka ibiltzen zuten; eta sarjentu nazionalistak, aitaren egin ondoren, moroak etorri bitartean eutsi omen zuen.

12. Gerrako basakeriak II

- **Erref:** ABL-006/026
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 01:35:54. **Bukatu:** 01:38:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

<p>Gerran Legution (Araba) zeudela, herriaren sarreran, erreka koskor bat pasatzerakoan, tiroketa izan zen. Orduan ebaki zioten hanka nazionalista bati. Moztutako izterra makalaren puntan jarrita egon omen zen eta ikara sortu zitzaizela dio.</p>

13. Soldaduek pasatako beldurra

- **Erref:** ABL-006/027
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 01:38:16. **Bukatu:** 01:41:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerran hildakoak eta zauritutakoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran soldadu zeudela, arrosarioa errezatzen zuten tarteka. Batzuek "hemen hilko gaituk" pentsatzen zutela dio. Soldadu asko bertan gelditu ziren enterratuta. Buruzagiek apuntatzen zuten nongoak ziren jakiteko-eta.

14. Gerra amaitu ondoren Almeriako kartzela batean preso bati ilea motzarazi zioteneko

- **Erref:** ABL-006/030
- **Iraupena:** 0:04:56. **Hasi:** 01:51:18. **Bukatu:** 01:56:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

Laburpena:

Gerra bukatu zela jakin zuten momentua erotzeko izan zela dio. Hiru guardia zibil hil zituzten herri bateko kartzelara eraman zituzten. Kartzelan emakumeak ere bazirela dio. Neska oso polit bati ilea moztuarazi zioten, bera barberu zegoelako; neska gaixoa marruka hasi zitzaion. Berak ere pena hartu zuen hari ilea moztean.

15. Gerrako berrien zain. Kartak frontetik

- **Erref:** ABL-006/032
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 01:58:14. **Bukatu:** 02:00:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra garaian, etxekoek gutunen bidez jakiten zuten haien berri. Gurasoak beti galdezka ibiltzen ziren. Amezketako bi neskari gutunak idatzi, eta postontzian biak nahastuta bota zituenean gertatutakoa kontatzen du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-07-02

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com